

## IZENA EMATEKO FITXA

IZENA/IZENAK \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

ABIZENAK \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

BAZKIDEAREN/BAZKIDEEN ZK. \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

IZENBURUA \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

HELBIDEA \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

POSTA KODEA \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

HERRIA \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

PROBINTZIA/HERRIALDEA \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

TELEFONOA/TELEFONOAK \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

HELBIDE ELEKTRONIKOA \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

## sgae fundazioa

### MATERIAL BIDALKETAK

SGAE Fundazioa. Ikus-entzunezkoen Saila  
Bárbara de Braganza 7  
28004 Madril

edo SGAEren Espainiako eta atzerriko edozein egoitzatan  
(ikusi helbideak hemen: [www.sgae.es](http://www.sgae.es))

### INFORMAZIOA

Interesdunek kontsultak egin eta oinarri hauei buruzko  
informazio gehiago jaso dezakete helbide hauetan:

[informacion@fundacionsgae.org](mailto:informacion@fundacionsgae.org)  
[audiovisuales@fundacionsgae.org](mailto:audiovisuales@fundacionsgae.org)  
[www.fundacionsgae.org](http://www.fundacionsgae.org)  
[www.sgae.es](http://www.sgae.es)

Ekimen honek **SGAE** ren laguntza jaso du

SGAE Fundazioari baimena ematen diot/diogu nire/gure datu pertsonalak erabil ditzan saria gauzatu eta burutzeko beharrezkoak diren kudeaketa guztietan.

sgae -ren Film Luzerako  
Gidoien XVII. Julio Alejandro Saria 2020

SGAE Fundazioak, ikus-entzunezko arloan dagoen eduki-  
eskaera gero eta handiagoaren aurrean, ezinbestekotzat  
jotzen du sustapen-esparru bat sortzea sektore horretako  
egileen sorkuntzen kalitatea sustatzeko. Horregatik, sari  
honetarako deialdia egiten du:

## **sgae** -ren Film Luzerako Gidoien XVII. Julio Alejandro Saria 2020

Sariari izen hori eman zaio gidoilari eta antzerkigile  
espainiar ospetsuaren omenez, bere lanak zinema  
iberoamerikarrean eragin handia izan baitzuen.

### OINARRIAK

**1.** Lehiaketara aurkeztu ahalko dira SGAEko kide diren egile guztiak, edozein nazionalitatekoak izanik ere. Egile bat baino gehiagoren lankidetzatik sortutako gidoia bada, parte hartu duten egile guztiak SGAEko kideak izan beharko dira, salbuespenik gabe. SGAEko Zuzendaritza Batzordeko kideak eta SGAE Fundazioko Patronatuko kideak eta aurreko hiru deialdietan saritutakoak edo finalistak ezin izango dira deialdi honetara aurkeztu.

**2.** Aurkeztutako gidoiak Estatu espainiarreko edozein hizkuntza ofizialetan idatzi ahalko dira eta guztiz jatorrizkoak, argitaragabeak eta fikziozko film luzerako idatziak izan beharko dute. Ez da onartuko egilearen beraren nahiz beste egileen lanen moldaketarik. Aurkeztutako lanak aurrez filmatu gabea izan beharko du eta ezingo du filmatzeko konpromisorik izan inongo ikus-entzunezko enpresarekin, lehiaketara aurkezten den unetik epaimahaiak erabakia hartu arte. Era berean, lehiaketatik baztertu egingo dira SGAEren Film Luzerako Gidoien XVII. "Julio Alejandro" Sariara aurkeztu aurretik sariren bat jaso duten gidoiak, bai eta lehiaketa horretara aurkeztu eta erabakia hartu bitartean saritutakoak ere.

**3.** Ez da onartuko laburpenik, ez tratamendurik, ez gidoi amaitu gaberik. Jatorrizkoak lanbide zinematografikoan erabiltzen diren ohiko formatuetako batean aurkeztu beharko dira. Horrez gain, Espainia eta Iberoamerikako ohiko filmazioetara egokitutako metrajea izan beharko dute. Horretarako, aurkeztuko den testua irakurgarritasuna bermatzeko eta iraupena balioesteko gomendagarriak diren baldintzekin aurkeztu beharko da (Courier 12 letra edo antzekoa, ezkerretara lerrokatuta, lerroarte bikoitzarekin, pdf formatuan, sekuentziario egokiarekin...); profesionalki aurkezpen desegokia duten lanak deialditik kanpora geratu ahalko dira epaimahaiak hala irizten badu.

**4.** Lanak euskarri digitalean aurkeztuko dira (CD). Egileen anonimotasuna zaintzeko, lanak izenburua adierazita bakarrik aurkeztuko dira. Izenburu hori lelo gisa erabiliko da. Lana gutun-azal baten barruan sartuko da, eta gutun-azalaren kanpoaldean izenburu bera idatziko da, baita zer saritara aurkezten den ere.

Gutun-azalaren barruan hurrengo hauek sartuko dira:

A. Lehiaketara aurkeztutako testuaren agiria duen CDa, egilea identifikatzea ezaugarririk gabe. Lehiaketara aurkeztu den lana gaztelania ez den Espainiako Estatu hizkuntza ofizialetako batean badago, egileak gaztelaniazko itzulpena aurkeztu dezake, lanaren jatorrizko hizkuntza ezagutzen ez duten epaimahaiakideek erabil dezaten. Egileak gaztelaniazko itzulpenik aurkezten ez badu, SGAE Fundazioak itzulpena egiteko baimena izango du, epaimahaiakideek lan-tresna bezala erabil dezaten. Itzulpenok suntsitu egingo dira sariaren epaia amaitzen denean.

B. Plika: gutun-azal txikiagoa, itxia, izenburu berdinarekin. Bertan, honako hau sartuko da:

- gidoia Jabetza Intelektualaren Erregistroan erregistratu izanaren ziurtagiriaren kopia.
- parte-hartzailearen edo parte-hartzaileen NANaren fotokopia
- oinarri hauei erantsita dagoen izen-emateko fitxa, atal guztiak beteta
- lehiakidearen edo lehiakideen curriculum vitae laburra.
- SGAE Fundazioaren aldeko egilearen edo egileen berariazko baimena, saria gauzatu eta burutzeko beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egiterakoan datu pertsonalak erabiltzeko baimena izan dezan
- lehiakidearen adierazpena, lana ekoizpen-foro nahiz promozio-jardueretan era mugatuan zabaltzeko baimena emanez, zinemako errealizazioa bultzatzeko helburuarekin, halakorik egotekotan Aipatutako agiriren bat aurkeztu ezean, lehiakidea kanporatu egingo da.

**5.** Gidoiak jasotzeko epea 2020ko maiatzaren 22tik uztailaren 3ra (barne). Muga-egunean posta ziurtatuaren bidez egindako bidalketak onartu egingo dira, nahiz eta beranduago jaso. Gutun-azala posta ziurtatuz bidali beharko da edo, bestela, eskura eman SGAE Fundazioan (Bárbara de Braganza 7, 28004 – Madril) nahiz SGAEren edozein egoitzatan, bai Espainian, bai atzerrian (ikus SGAEren egoitzen helbideak hemen: [www.sgae.es](http://www.sgae.es)).

**6.** Sariaren Epaimahaia (SGAE Fundazioak izendatuko du, eta baita bertako lehendakaria ere) zinema arloko egile eta profesionalak osatuko dute. SGAE Fundazioak ahalegina egingo du, ahal den neurrian, Epaimahaiko kideen artean espainiar estatuko autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialak ezagutzen dituzten profesionalak egon daitezten. Epaimahaiak hiru finalista aukeratuko ditu eta 2020ko urria eta azaroa bitartean iragarriko ditu. Sariaren Epaimahaiaren behin betiko erabakia jendaurreko ekitaldi batean jakitera emango da, 2020ko azken hiruhilekoa amaitu baino lehen.

**7.** Saria ezingo da eman gabe geratu, eta Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Epaimahaiko kideen boto berdinketa balego, lehendakariak kalitateko botoa erabili ahalko luke.

**8.** Lehiaketak honek sari bakarra eta zatiezina du: hogeita bost mila eurokoa (25.000 €). Sariarik irabazten ez duten bi finalistek, izendapen horregatik hiru mila bostehun euro jasoko dute (3.500 €). Zenbateko horiek indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen zergen menpe egongo dira.

**9.** Saritutako egileak edo egileek hitzematzen dute saria esleitzen zaienetik sinatuko dituzten lagatze-kontratuaren espizituki honako hauek zehaztuko direla: etorkizunean egindako film luzearen kopietan, bai euskarri zinematografikoan, bai bideografikoan, bai beste edozein euskarritan edo promoziorako materialetan "SGAEren Film Luzerako Gidoien XVII. "Julio Alejandro" Saria 2020" aipamena eta SGAE Fundazioaren logotipoa.

**10.** Saritutako testua jakitera eman ondoren, finalista moduan hautatuak izan ez diren lanak suntsitu egingo dira. Ez da alerik itzuliko, eta ez da horien gaineko jabetzarik edukiko.

**11.** Parte-hartzaileek, lehiaketan parte hartzen duten heinean, oinarri hauek osoki onartzen dituzte, baita Epaimahaiaren erabakiak ere.

**12.** Parte-hartzaileek SGAE Fundazioa erantzukizun orotatik salbuesten dute, baldin eta haietakoren batek plagiorik edota indarrean dagoen lege-urraketarik egingo balu.

**13.** Erreklamaziorik edo gatazkarik izanez gero, bai parte-hartzaileak, bai antolakuntza Madrilgo hiriburuko Auzitegien jurisdikzioaren mende egongo dira.